

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alex Larragoiti Gonzalez de Mendibil

*Otxandio,
Bizkaia (1972)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

OTX-060

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-30
- **Iraupena:** 8 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Nazio minorizatuak ezagutzen Bittorren eskutik

- **Erref:** OTX-060/002
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

16-17 urterekin ezagutu zuen Bittor. Herriko Tabernako txoko batean egoten zen egunkaria irakurtzen. Ordu asko egiten zuten berbetan. Oso lagun egin ziren. Berarentzat batez ere laguna zen. Euskara eta euskal Herria maitatzen Bittorrekin ikasi zuen. Egunkaria hartu eta notiziak komentatzen zituzten. Euskararen arloa aipatzen da bet , baina badago beste arlo inportante bat ere: beste nazioak, minorizatutako beste kulturak maitatzen ikasi zuen berarekin. 1992an gertatu zen Sobiet Batasunaren porrota, eta orduan azalera zuen hainbat nazio: txetxeniarrak, inghusak eta Kaukasoko beste batzuk. Bittorren bidez izan zuten haien berri. Hizlari ona bazen, entzule hobea zen. Errespetu handiz hurbiltzen zen jendearengana. Otxandiora etortzen ziren kanpotarrak Bittorregandik pasatzen ziren eta haren lagun min bihurtzen ziren. Gure tesitura berdintsuan dauden herrialdeak ezagutu eta maitatzen ikasi zuen. Hori da berarentzat Bittorren ekarpenik handiena.

2. Otxandion garena bagara Bittorren modukoengaitik gara

- **Erref:** OTX-060/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Bittor ez zen errekonozitua izan. Pertsona arraroa zen, bai, baina hori ez txarra. Bere zaletasunak zituen, eta askok ez zuten ulertzen. Esandakoez gain, beste aportazio batzuk ere egin zituen, kooperatibak sortzen, kulturaren... Otxandion garena bagara Bittorren modukoengaitik gara. Bere partzelaren defendatzaile sutsu asko dago mundu akademikoan, horregatik ez zuten hain ondo ikusten Bittor.

3. Gazte artean gustura

- **Erref:** OTX-060/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ez txokoan bakarrik, Alexen etxean ere egoten zen gaztez inguratuta. Eta beste bat gehiago izaten zen. Moldatzen zekien egoeretara eta gaietara. Asko gustatzen zitzaion politikaz berba egitea, beti ere errespetuz. Pentsatzen du oso pozik egongo zela gaur eguneko egoerarekin edo ibilbidearekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com